# Encuesta de Presupuestos de Tiempo

## Análisis de resultados

# Denbora-aurrekontuen Inkesta

## Emaitzen analisia

Eustat

2003

1.1 Introducción
1.2 Principales cambios en el uso del tiempo 2003
1.3 Determinantes de la vida cotidiana
1.4 Diferencias en los ritmos diarios
1.5 Tipos de jornadas
1.6 Resultados comparados

1.1 Sarrera
1.2 Denboraren erabileran izandako aldaketa nagusiak 2003 urtean
1.3 Eguneroko bizitzako eragileak
1.4 Eguneroko erritmoetan dauden gorabeherak
1.5 Jardunaldi motak
1.6 Emaitza konparatuak

## 1.1 Introducción

Los cambios en el empleo del tiempo de la población reflejan en realidad cambios en los hábitos de vida de las personas, cambios que tienen origen tanto en la evolución de las relaciones productivas como en la consiguiente evolución de las pautas de comportamiento social en muchos aspectos, tales como los modos de consumo o la definición empleo del tiempo libre.

La estructura demográfica y socioeconómica de la población vasca va cambiando y se acentúan comportamientos en el empleo del tiempo cuyas tendencias ya se apuntaban al analizar los resultados de los periodos anteriores.

El aumento de la esperanza de vida conlleva una menor presencia numérica de personas jóvenes -y por consiguiente de sus actividades más características-, conlleva una mayor presencia de mayores de 65 años y también una diversificación de actividades entre las generaciones más viejas y las más jóvenes.

La estructura familiar va cambiando en tamaño y composición, el tamaño familiar medio es menor que nunca, al tiempo que crece el número de familias monoparentales y las de un solo miembro.

A esto se suma la progresiva incorporación femenina al trabajo remunerado así como la distribución diferencial de la renta por edad y género. En todo caso los cambios son lentos, progresivos, y en torno a ellos el presente análisis detecta pequeñas diferencias en las tasas de participación de algunos grupos sociales y también en variaciones en el tiempo empleado por ellos en determinadas actividades.

El enfoque del presente análisis, en la línea de los dos anteriores ya publicados y contando con ellos mismos, parte de dos elementos principales: una **agrupación** de las actividades que constituyen el abanico de clasificación de los comportamientos y hábitos sociales por un lado, y una **tipologización** de la población según ciertas características sociales y económicas por el otro. Todo ello sin olvidar **el día de la semana** y los tres **tipos de medida** más usuales en este tipo de encuestas sobre presupuestos de tiempo.

El enfoque consta, por un lado, de una **agrupación de las actividades** en ocho grandes grupos que contienen actividades afines en su interior. Estos grandes grupos permiten, en principio, valoraciones generales y comparaciones evolutivas, y posteriormente entrar en detalles presentando un análisis temático coherente. Se efectúa aquí la detección y articulación de los hábitos generales, resaltando las actividades más extendidas y de mayor presencia frente a las que suscitan o requieren una atención menor. La agrupación admite tanto desglose de actividades (hasta 2 y 3 dígitos de su codificación) como agrupaciones más gruesas pero signi-

## 1.1 Sarrera

Biztanleriak denbora erabiltzeko moduan egon diren aldaketek pertsonen bizi-ohiturak islatzen dituzte. Aldaketa horiek produkzio erlazioen bilakaeraren eraginezkoak dira, baita gizartearen jokabide-jarraibideen eraginezkoak ere, era guztietako alderdietan, esate baterako, kontsumoko moduak edo aisiaren erabileraren zehaztapena.

Euskadiko biztanleriaren egitura demografikoa eta sozioekonomikoa aldatzen ari da eta nabarmendu egiten dira denbora erabiltzearen inguruko jokabideak, eta joera horiek aurreko aldietako emaitzak aztertzean ere agerian gelditu dira.

Bizi-itxaropenak gora egitearen ondorioz, gazte kopuruak presentzia txikiagoa dauka (baita horien ohiko jardueren presentzia txikiagoa ere) eta 65 urtetik gorakoen taldeak, ostera, presentzia handiagoa dauka; gainera, belaunaldirik zaharrenen eta gazteenen arteko jarduerak dibertsifikatu egin dira.

Familien egitura aldatu egin da kide kopuruaren eta osaketaren aldetik; familien batez besteko kide kopurua inoizkorik txikiena da, eta, aldi berean, kide bakarreko familien kopurua gero eta handiagoa da.

Halaber, emakumea ordaindutako lanean sartzen ari da apurka-apurka, eta errentaren banaketa diferentziala dago adinaren eta generoaren arabera. Nolanahi ere, aldaketak motelak eta apurka-apurkakoak dira, eta, horien inguruan, azterketa honek desberdintasun txikiak detektatzen ditu, gizarte batzuen partaidetza-tasetan eta talde horiek jarduera jakinetan erabilitako denboraren aldaketetan.

Azterketa honen ikuspegia, lehenago argitaratu diren beste biei jarraituz, bi elementu nagusitan oinarritzen da: alde batetik, gizartearen jokabideen eta ohituren sailkapenaren multzoa osatzen duten jardueren **pilaketa**, eta bestetik, biztanleriaren **tipologizazioa**, ezaugarri sozialak eta ekonomikoak kontuan hartuta. Era berean, ez da ahaztu behar astialdiari buruzko inkestak **astearen zein egunetan** egiten diren eta **neurketarako hiru mota** nagusiak zein diren.

Alde batetik, **jarduerak** barruan antzeko jarduerak dituzten zortzi talde nagusitan **bildu dira**. Talde handi horiek, lehenengo eta behin, balorazio orokorrak eta bilakaera-konparazioak egiteko aukera ematen dute, eta gero, xehetasunetan sartzea ahalbidetzen dute, gaikako azterketa koherentea aurkeztuz. Hemen ohitura orokorrak detektatu eta egituratzen dira, jarduerarik hedatuenak eta presentziarik handiena dutenak nabarmenduz, arreta txikiagoa sortzen edo eskatzen dutenei dagokienez. Bilketak jardueren desglosea (kodifikazioaren 2-3 digitu) eta handiagoak baina adierazgarriak diren beste bilketa batzuk (lanaren denbora osoa, aisialdia-

ficativas (tiempo de trabajo total, tiempo de ocio total, necesidades fisiológicas y trayectos).

Por otro lado, el enfoque consta también de una **tipología social** atendiendo a variables económicas y sociales, buscando mayor homogeneidad interna en los grupos que la ofrecida por el promedio de la población y buscando así mismo que responda en gran medida a los tipos sociales existentes. Los tipos resultantes (varones ocupados, mujeres ocupadas, varones jubilados, mujeres jubiladas, varones estudiantes, mujeres estudiantes, mujeres amas de casa, varones parados, mujeres paradas) contribuyen también al análisis de denominados **ritmos diarios**, es decir, la distribución de las actividades a lo largo de las 24 horas que tiene el día.

Las **medidas fundamentales** que sintetizan los datos recogidos son el TIEMPO MEDIO SOCIAL (TMS), la tasa de participación (TP) y el tiempo medio por participante (TMP).

Se debe distinguir el "Tiempo medio social", entendido como el tiempo medio que dedica la población de 16 y más años a una actividad concreta durante un día determinado, del "Tiempo medio por participante", entendido como el tiempo medio que dedica a una actividad concreta la población de 16 y más años que sí la realiza durante el día considerado. Además se presenta también la "Tasa de participación", entendida como el porcentaje de personas de 16 y más años que realiza una actividad concreta durante el día considerado.

Obviamente, no es lo mismo el tiempo medio que dedican al trabajo remunerado los días laborables las personas de 16 y más años, que sería "Tiempo medio social", que el tiempo que dedican los días laborables a trabajar con remuneración las personas de 16 y más años ocupadas, "Tiempo medio por participante", y que lógicamente será mayor, pues no todas las personas de 16 y más años lo realizan. Precisamente, será la "Tasa de participación" la que indica qué porcentaje de población de 16 y más años trabaja con remuneración.

Es preciso subrayar, una vez más, la importancia del **día de la semana** en la determinación del empleo del tiempo que efectúa cada uno de los tipos sociales para los grupos de actividades establecidos.

La presentación de los resultados admite una amplia variedad de formas dada la variedad de su contenido. En la presente se ha optado por incluir:

En el capítulo 1 una presentación de los últimos resultados correspondientes a la EPT 2002-2003.

En el capítulo 2 un desglose de los determinantes sociales -género y relación con la actividad, fundamentalmente-.

En el capítulo 3 una presentación de la frecuencia de actividades a lo largo de las 24 horas del día, su concentración y complementaridad.

En el capítulo 4 una somera descripción de la jornada diaria de los diversos tipos sociales.

En el capítulo 5 una perspectiva de la evolución de los resultados obtenidos en los 10 años de la operación estadística;

ren denbora osoa, beharrizan fisiologikoak eta ibilbideak) onartzen ditu.

Bestalde, ikuspegiak **tipologia soziala** dauka; horrek aldagai ekonomikoak eta sozialak hartzen ditu aintzat, eta taldeetan barne homogeneotasun handiagoa biltzen du, biztanleriaren batez bestekoak eskainitakoa baino, eta, halaber, oraingo mota sozialei neurri handian erantzuna eman nahi die. Ondoriozko motak (okupaturiko gizonak, okupaturiko emakumeak, jubilaturik dauden gizonak, jubilaturik dauden emakumeak, gizon ikasleak, emakume ikasleak, etxekoandreak, langabezian dauden gizonak, langabezian dauden emakumeak) lagungarriak dira **eguneroko erritmoak** aztertzeko, hau da, jarduerek egunaren 24 orduetan duten banaketa aztertzeko.

Bildutako datuak laburbiltzen dituzten **funtseko neurriak** BATEZ BESTEKO DENBORA SOZIALA (BDS), partaidetza--tasa (PT) eta partaide bakoitzeko batez besteko denbora (PBD) dira.

"Batez besteko denbora soziala" (16 urteko edo hortik gorako biztanleek jarduera jakinean egun jakinean eman dezakeen denbora) eta "Partaide bakoitzeko batez besteko denbora" (16 urteko edo hortik gorako biztanleek jarduera jakinean ematen duen denbora, egun jakinean jarduera hori seguru egiten duela kontuan hartuta) bereizi behar dira. Gainera, "Partaidetza-tasa" ere agertzen da, hau da, kontuan harturiko egunean jarduera jakina egiten duen 16 urteko edo hortik gorako pertsona kopurua.

Jakina, ez da gauza bera 16 urteko edo hortik gorako pertsonek astegunetako lan ordainduan ematen duten denbora ("Batez besteko denbora soziala") eta 16 urteko edo hortik gorako pertsona okupatuek ordainduta eta astegunean lanean ematen duten denbora ("Partaide bakoitzeko babes besteko denbora"; azken hori, jakina, handiagoa izango da, 16 urteko edo hortik gorako pertsona guztiek ez baitute halako lanik egiten. Hain zuzen ere, ordainduta lan egiten duen 16 urteko eta hortik gorako biztanle kopurua "Partaidetza-tasak" adierazten du.

Orain ere azpimarratu egin behar dugu **asteko egunaren** garrantzia, mota sozial bakoitzaren denboraren erabilera zehazteko, ezarritako jarduera taldeei dagokienez.

Emaitzen aurkezpenak forma aniztasun handia onartzen du, horren eduki anitza kontuan hartuta. Oraingoan,

1. kapituluan, EPT 2002-2003 deritzonaren azken emaitzak aurkeztea erabaki dugu.

2. kapituluan, berriz, eragile sozialen desglosea egin dugu (generoa eta jarduerarekiko erlazioa, batik bat).

3. kapituluan, jarduerek egunaren 24 orduetan duten maiztasuna, pilaketa eta osagarritasuna aurkeztu ditugu.

4. kapituluan, mota sozial desberdinen eguneroko jardunaldiaren azaleko deskribapena egin dugu.

5. kapituluan, eragiketa estatistikoaren 10 urteetan lorturiko emaitzen bilakaeraren ikuspegia azaltzen da. Horrez gain,

se incluye, además, una perspectiva de la situación actual, atendiendo a las encuestas europeas publicadas por Eurostat después de 2001 y en especial a la EET 2002-2003 realizada por el INE y publicada 2004.

egungo egoeraren gaineko ikuspegi bat ere sartzen da, betiere Eurostatek 2001. urtetik aurrera argitaratu dituen Europako inkestak aintzat hartuta eta batez ere INEk egindako Aldi Baterako Laneko Enpresen (ABLE) gainekoa (2004. urtean argitaratu zena).

<table>
<tr><th>EUSTAT</th><th>INE</th><th>EUROSTAT</th><th>GENERAL</th></tr>
<tr><td>Fisiologi beharrizanak<br>Necesidades fisiológicas</td><td>Zaintza pertsonalak<br>Cuidados personales</td><td>Loa<br>Otorduak eta zaintza pertsonalak<br>Sueño<br>comidas y cuidados personales</td><td>Zaintza pertsonalak<br>Cuidados personales</td></tr>
<tr><td>Lana eta Prestakuntza<br>Trabajo y formación</td><td>Ordaindutako lana<br>Prestakuntza<br>Trabajo remunerado<br>Formación</td><td>Ordaindutako lana<br>Prestakuntza<br>Trabajo remunerado<br>Formación</td><td>Ordaindutako lana<br>Ikasketa<br>Trabajo remuneado<br>Estudio</td></tr>
<tr><td>Etxeko lanak<br>Etxeko lagunez arduratzea<br>Trabajos domésticos<br>Cuidados a las personas del hogar</td><td>Familia eta etxea<br>Familia y hogar</td><td>Etxeko lanak eta pertsonen zaintza<br>Trabajos domésticos y<br>cuidados a personas</td><td>Familia eta etxea<br>Familia y hogar</td></tr>
<tr><td>Gizarte-harremanak<br>Vida social</td><td>Borondatezko lana eta bilerak<br>Gizarte-harremanak eta dibertsioa<br>Trabajo voluntario y reuniones<br>Vida social y diversión</td><td>Borondatezko lana<br>Gizarte-harremanak<br>Trabajo voluntario<br>Vida social</td><td rowspan="4">Aisia<br>Tiempo de ocio</td></tr>
<tr><td>Aisia aktiboa: kirolak,<br>eta PC nahiz Internet<br>Ocio activo: deportes, y PC e Internet</td><td>Kirolak eta aire zabaleko jarduerak<br>Deportes y actividades al aire libre</td><td rowspan="2">Aisia<br>Tiempo de ocio</td></tr>
<tr><td rowspan="2">Aisia pasiboa eta zaletasunak<br>Ocio pasivo y aficiones</td><td>Zaletasunak eta jolasak<br>Aficiones y juegos</td></tr>
<tr><td>Komunikabideak<br>Medios de comunicación</td><td>Telebista eta bideoa<br>Beste batzuk (irakurri, musika, irratia..)<br>Televisión y vídeo.<br>Otros medios (leer, música, radio...)</td></tr>
<tr><td>Joan-etorriak<br>Trayectos</td><td>Joan-etorriak eta beste batzuk<br>Trayectos y otros</td><td>Joan-etorriak<br>Trayectos</td><td>Joan-etorriak<br>Trayectos</td></tr>
</table>

El análisis del empleo del tiempo es un tema de gran riqueza en contenido, de cierta sofisticación en el análisis, que admite diversidad de enfoques y cuyo análisis de datos genera insatisfacción con cierta frecuencia, debido a lo sucinto de las conclusiones y al hecho de que, con frecuencia también, dichas conclusiones no se ponen en relación directa con fenómenos ampliamente estudiados y ya difundidos por expertos del ámbito de las Ciencias Humanas.

La fecha de refencia de los datos de la Encuesta de Presupuestos de Tiempo 2002-2003 que aquí se presentan es el 15 de febrero de 2003 (en adelante EPT 2003).

Denboraren erabileraren azterketak aberastasun handia dauka edukiaren aldetik; gainera, azterketa nahiko sofistikatua dauka eta era askotako ikuspegiak onartzen ditu; halaber, datuen azterketak sarritan poztasunik eza sortzen du, bai ondorioak oso laburrak direlako eta bai ondorio horiek sarritan lehendik sakon ikerturiko eta Giza Zientzien arloko adituek zabaldutako fenomenoekin erlazio zuzenean jartzen ez direlako.

Hemen aurkezten diren Denbora-aurrekontuen inkestako 2002-2003 datuen erreferentziako data 2003ko otsailaren 15a da (aurrerantzean DAI 2003).

## 1.2 Principales cambios en el uso del tiempo 2003

*Distribución diaria de las actividades* **1**




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

El día promedio de un ciudadano tipo no ha variado en gran medida en los últimos 10 años, pero sí aparecen ligeros cambios de tendencia.

En el año 2003 un ciudadano “tipo” que tenga 16 años o más en un día “tipo” emplea su tiempo de la siguiente manera: 11 horas y 50 minutos en satisfacer necesidades fisiológicas, 6 horas y 7 minutos en trabajos relativos a la reproducción de su hogar (trabajo remunerado, trabajo del hogar no remunerado, cuidados a personas del hogar), 4 horas y 54 minutos en actividades de ocio y vida social y el resto del tiempo, 1 hora y 8 minutos en trayectos y desplazamientos.

Se puede afirmar, respecto a períodos de análisis anteriores, que un ciudadano tipo de la C.A. de Euskadi dedica más tiempo (16 minutos más que en el quinquenio anterior) a satisfacer sus necesidades fisiológicas, restringe 15 minutos el tiempo dedicado al ocio en general y no incrementa de forma importante el tiempo medio denominado tiempo de trabajo total ni el dedicado a trayectos.

## 1.2 Denboraren erabileran izandako aldaketa nagusiak 2003 urtean

***Jardueren eguneroko banaketa***

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

Ohiko hiritar baten batez besteko eguna ez da asko aldatu azken 10 urteotan, baina joeran aldaketa txiki batzuk ikusten dira.

2003. urtean, 16 urteko edo hortik gorako "ohiko" hiritar batek, "ohiko" egun batean, ondoren adierazitakoaren arabera erailtzen du denbora: 11 ordu eta 50 minutu FISIOLOGI BEHARRIZANAK asetzen, 6 ordu eta 7 minutu etxeko produkzioari loturiko lanetan (ordaindutako lana, ordaindu gabeko etxeko lanak, etxeko lagunez arduratzea), 4 ordu eta 54 minutu aisialdiko nahiz gizarte-harremanetako jardueretan, eta denboraren gainerako zatia, ordu 1 eta 8 minutu, joan--etorrietan eta lekualdatzeetan.

Esan daiteke, lehenagoko azterketa aldiei dagokienez, EAEko ohiko hiritar batek denbora gehiago ematen duela (aurreko bosturtekoan baino 16 minutu gehiago) bere fisiologi beharrizanak asetzen; gainera, 15 minutu kentzen dizkio aisia orokorrari eta ez du modu nabarmenean handitzen lan osorako batez besteko denbora edo joan-etorrietara zuzendutakoa.

Los promedios encierran diferencias en los grupos de actividad, diferencias que se manifiestan al desglosar los grupos con mayor detalle.

Batez bestekoek aldeak dituzte jarduera taldeetan, eta alde horiek taldea xehetasun handiagoz desglosatzean adierazten dira.

En el capítulo de necesidades fisiológicas el tiempo dedicado al sueño se cifra en 8 horas 45 minutos y no presenta variaciones respecto al quinquenio anterior; el aumento en el tiempo dedicado a necesidades fisiológicas y cuidados personales descansa fundamentalmente en el aumento del tiempo empleado en comidas y aperitivos fuera del domicilio. En esta actividad el tiempo medio por participante es 8 minutos superior al dato de 1998, situándose ahora en 1 hora y 13 minutos. Las comidas fuera del domicilio presentan un tiempo medio social superior en 13 minutos al quinquenio anterior y parecen ligadas a la incorporación de la mujer al mundo laboral, con una tasa de participación que supera la de 1998 en 14 puntos porcentuales.

Fisiologi beharrizanei buruzko kapituluan, lotarako denbora 8 ordu eta 45 minutukoa zen, eta ez du aldaketarik aurreko bosturtekoari dagokionez; fisiologi beharrizanei eta zaintza pertsonalei zuzendutako denboraren gorakada, berriz, etxetik kanpoko otorduetan eta aperitiboetan erabilitako denboraren gorakadan oinarritzen da. Jarduera horretan, partaide bakoitzeko batez besteko denbora 8 minutu luzeagoa da 1998ko datua baino, eta, orain, ortu 1 ea 13 minutukoa da. Etxetik kanpoko otorduek aurreko bosturtekoan baino 13 minutu gehiago behar dute, batez besteko denbora sozialari dagokionez, eta gainera, emakumea laneratzeari lotuta agertzen dira, antza denez; izan ere, partaidetza-tasa 1998koa baino 14 puntu handiagoa da.

Entendiendo por tiempo de trabajo total tanto el remunerado como el no remunerado, es decir, el dedicado a la reproducción del hogar, el tiempo medio social parece estable en el decenio considerado. Así mismo, los días de la semana muestran diferencias en el tiempo de trabajo total: éste se concentra de lunes a jueves, disminuye el viernes -casi 30 minutos- y apenas varía el sábado (4 horas y 12 minutos) y el domingo (3 horas y 9 minutos) en la última década.

Lan osoaren denbora ordaindutakoa eta ordaindu gabea dela jota, hau da, etxeko produkzioan emandakoa dela pentsatuz gero, batez besteko denbora soziala itxuraz egonkorra da azterturiko hamar urteetan. Halaber, asteko egunek ere desberdintasunak adierazten dituzte lan osoaren denboran: hori astelehenetik ostegunera pilatzen da, eta ostiralean behera egiten du (ia 30 minutu), eta larunbatean (4 ordu eta 12 minutu) eta igandean (3 ordu eta 9 minutu) ia ez du aldaketarik izan, azken hamarkadan.

El tiempo dedicado al trabajo principal se cifra en 2 horas y 43 minutos, habiendo crecido su tasa de participación 3 puntos porcentuales. La formación reglada reduce su tiempo medio social en 6 minutos. No aumenta el tiempo dedicado a los trabajos domésticos y disminuye 3 puntos la tasa de participación, cifrándose en 78,6%, es decir, la población no dedica más efectivos ni más tiempo a este tipo de actividades.

Lan nagusian emandako denbora 2 ordu eta 43 minutukoa da; horren partaidetza-tasak 3 puntuko gorakada izan du. Arauturiko prestakuntzak, bestalde, 6 minututan murriztu du batez besteko denbora soziala. Etxeko lanetan emandako denborak ez du gorakadarik izan eta partaidetza-tasak 3 puntuko beherakada izan du; hain zuzen ere, %78,6koa da, hau da, biztanleriak ez du efektibo edo denbora gehiago erabil-tzen halako jarduereetan.

El tiempo empleado en trabajo remunerado y en la formación se concentra de lunes a jueves elevando el tiempo medio social dedicado a dichas actividades en 14 minutos -para estos días laborables- respecto al dato de 1998; la tasa de participación en este grupo de actividades ha crecido desde 1998 en 6,3 puntos porcentuales de lunes a jueves y en 2,2 los viernes, debido fundamentalmente al aumento de la tasa de participación en actividades de trabajo remunerado.

Ordaindutako lanean eta prestakuntzan erabilitako denbora astelehenetik ostegunera pilatzen da, eta jarduera horietara bideraturiko batez besteko denbora soziala 14 minututan luzatu da (astegun horietarako), 1998ko datuari dagokionez; jarduera talde horretako partaidetza-tasak, 1998tik hona, 6,3 puntuko gorakada izan du astelehenetik ostegunera, eta 2,2 puntuko gorakada ostiraletan, batik bat ordaindutako lan-jardueretan partaidetza-tasak izan duen gorakadaren eraginez.

Se aprecia una proporción de población femenina implicada en estas actividades de trabajo remunerado y formación de casi el 50% (49,4%) de lunes a jueves. El tiempo medio por participante disminuye 24 minutos los días laborables, lo cual hace pensar en la presencia de mayor número de jornadas laborales y algunas de ellas más cortas. El tiempo medio por participante de lunes a jueves para los varones es de 7 horas y 36 minutos en el grupo de actividades Trabajo y formación y 6 horas y 46 minutos para las mujeres.

Emakumeen biztanleriaren proportzio batek, bestalde, ia %50eko (%49,4) inplikazioa dauka ordaindutako lanaren eta prestakuntzaren jarduera horietan, astelehenetik ostegunera. Partaide bakoitzeko batez besteko denborak 24 minutuko beherakada izaten du astegunetan, eta horrela, pentsa daiteke lanaldi kopuru handiagoa dagoela eta horietariko batzuk laburragoak direla. Partaide bakoitzeko batez besteko denbora, astelehenetik ostegunera, gizonen kasuan, 7 ordu eta 36 minutukoa da, lan eta prestakuntza jardueren taldean, eta 6 ordu eta 46 minutukoa, emakumeen kasuan.

Si relacionamos este dato con el aumento de las comidas fuera del domicilio familiar se intuye la influencia de la incorporación de la mujer al trabajo remunerado, aunque no a tiempo completo. La tasa de participación masculina en el trabajo profesional principal es del 46,8% y la femenina del 30,8%, similares a las que presenta Eurostat para Francia y Bélgica en el año 2002.

Datu hori etxetik kanpoko otorduek izandako gorakadarekin konparatuz gero, esan daiteke emakumea ordaindutako lanean sartzeak eragina izan duela, nahiz eta lan hori lanaldi osokoa ez izan. Gizonek ogibide-lan nagusian duten partaidetza %46,8koa da, eta emakumeek dutena %30,8koa da; hau da, Eurostatek Frantziarako eta Belgikarako 2002. urteetan aurkezturikoen antzekoak dira.

Los varones ocupados emplean, en su trabajo principal, de lunes a jueves 7 horas y 40 minutos y los viernes 4 minutos menos; las mujeres ocupadas de lunes a jueves emplean 6

Okupaturiko gizonek, lan nagusian, astelehenetik ostegunera, 7 ordu eta 40 minutu erabiltzen dituzte, eta ostiraletan 4 minutu gutxiago erabiltzen dute; emakume okupatuek, aste-

horas y 31 minutos mientras los viernes invierten 25 minutos menos.

*Evolución de la distribución del tiempo medio social* **2** ***Batez besteko denbora sozialaren banaketa***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

Los trabajos domésticos ocupan al 78,6% de la población durante 3 horas y 2 minutos al día, elevándose ligeramente por encima del 80% los sábados y domingos. El resto de personas de 16 y más años, casi un 20%, no reseña actividades de este grupo en su diario, por tanto no realiza trabajos domésticos durante un plazo igual o mayor que 5 minutos diarios.

El tiempo medio social que las mujeres emplean en estos menesteres es de 3 horas y 31 minutos mientras los varones emplean 1 hora y 10 minutos.

Atendiendo al género, la tasa de participación femenina es del 90,7% y la masculina es del 65,6%.

Se observa que el tiempo medio dedicado a los trabajos domésticos así como la tasa de participación son ligeramente inferiores al dato de 1998 y de 1993 precisamente de lunes a viernes, elevándose el tiempo medio -social y por participante- los sábados y domingos.

Los cuidados a personas del hogar ocupan 21 minutos de la vida diaria de la población. A los participantes, auténticos cuidadores de niños y adultos -apenas el 20% de la población-, si son varones les ocupa 1 hora y 22 minutos y si son mujeres 2 horas. En los distintos períodos analizados se aprecia una tendencia al aumento del tiempo empleado en este grupo de actividad por los participantes. La tasa de participación de los varones se cifra en el 14,7% y la tasa de las mujeres en el 24,4%.

El epígrafe cuidados a niños ha visto aumentar el tiempo medio por participante en 6 minutos y el de juegos e instrucción en 7 minutos. Mientras los cuidados a niños ocupan más tiempo a las mujeres que los efectúan que a los varones que lo hacen -32 minutos más-, los juegos e instrucción muestran una distribución más igualitaria.

lehenetik ostegunera, 6 ordu eta 31 minutu erabiltzen dituzte, eta ostiraletan 25 minutu gutxiago erabiltzen dute.

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

Etxeko lanetan biztanleriaren %78,6 ibiltzen da, egunero 3 ordutan eta 2 minututan; eta larunbat eta igandeetan portzentaia hori %80 baino apur bat altuagoa da. 16 urteko eta hortik gorako pertsonen gainerakoak, ia %20ak, ez du talde honetako jarduerarik aipatu bere egunkarian, eta beraz, ez dute etxeko lanik egiten eguneroko 5 minutuko epean edo hortik gorako epean.

Emakumeek halako lanetan erabiltzen duten batez beste denbora soziala 3 ordu eta 31 minutukoa da, eta gizonek, berriz, ordu 1 eta 10 minutu erabiltzen dituzte.

Generoa kontuan hartuta, emakumeen partaidetza-tasa %90,7koa da eta gizonena %65,6koa.

Etxeko lanetan emandako batez besteko tasa eta partaidetza-tasa 1998koak eta 1993koak baino apur bat txikiagoak dira, hain zuzen ere astelehenetik ostiralera, eta batez besteko denborak (soziala eta partaide bakoitzekoa) gora egiten du larunbatetan eta igandeetan.

Biztanleek eguneroko bizitzako 21 minutu ematen dituzte etxeko pertsonen zaintzan. Partaideek, haurren eta nagusien benetako zaintzaileak (ia biztanleriaren %20a), gizonak direnean ordu 1 eta 22 minutu ematen dituzte eta emakumeak direnean 2 ordu. Azterturiko aldi desberdinetan ikusten denez, partaideek gero eta denbora gehiago erabiltzen dute jarduera talde honetan. Gizonen partaidetza-tasa %14,7koa da eta emakumeena %24,4koa.

Haurren zaintzaren epigrafean, partaide bakoitzeko batez besteko denborak 6 minutuko gorakada izan du, eta jolasen eta heziketaren epigrafean, gorakada hori 7 minutukoa izan da. Haurren zaintzan emakumeek gizonek baino denbora gehiago ematen dute (32 minutu gehiago), eta jolasetan eta heziketan banaketa orekatuagoa da.

En todo caso no se dedica más tiempo al cuidado de adultos por parte de los varones ni de las mujeres. El tiempo medio por participante en cuidado de adultos se sitúa en 1 hora y 21 minutos para varones y 1 hora y 48 minutos para mujeres, con unas tasas de participación del 1,5% y 6,2%, respectivamente.

Nolanahi ere, gizonek eta emakumeek antzeko denbora ematen dute nagusien zaintzan. Partaide bakoitzak nagusien zaintzan ematen duen batez besteko denbora ordu 1 eta 21 minutukoa da gizonen kasuan, eta ordu 1 eta 48 minutukoa emakumeen kasuan, eta partaidetza-tasak %1,5ekoa eta %6,2koa dira, hurrenez hurren.

*Evolución de la tasa de participación* **3** ***Partaidetza-tasaren bilakaera***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT** **Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

El tiempo medio social dedicado al ocio en general -concepto que incluye la Vida social, Ocio activo y Ocio pasivo- baja de las 5 horas en 2003 por vez primera. En 1993 se cifraba en 5 horas y 27 minutos, en 1998 disminuyó hasta 5 horas y 9 minutos y en 2003 se sitúa en 4 horas y 54 minutos. El tiempo dedicado a estas actividades se concentra los fines de semana. En general se observa un descenso persistente que reduce ese tiempo a 4 horas y 11 minutos los días laborables y a 6 horas y 52 minutos los domingos.

Los viernes aumenta el tiempo de ocio a 4 horas y 36 minutos, alcanzando el sábado 6 horas y 6 minutos y el domingo 6 horas y 52 minutos. A pesar de todo, son valores inferiores a los encontrados en las tomas de datos anteriores, tanto para varones como para mujeres.

Entrando al detalle del concepto general, las actividades agrupadas en el epígrafe Vida Social muestran una ligera disminución en el tiempo empleado respecto a quinquenios anteriores.

Este grupo de actividades implica a más de la mitad de la población, de viernes a domingo, pero la tasa de participación va descendiendo paulatinamente y en 2003 el tiempo medio por participante se cifra en 1 hora y 50 minutos.

Valga como ejemplo el apartado Recepciones y salidas, el cual presenta un descenso en la participación de 7,4 puntos porcentuales, aunque el tiempo medio por participante se mantiene en 2 horas y 5 minutos.

Aisian emandako batez besteko denbora soziala (kontzeptu horren barruan gizarte-harremanak, aisia aktiboa eta aisia pasiboa sartzen dira), bestalde, 2003ko 5 orduetatik jaitsi da lehenengoz. 1993an 5 ordu eta 27 minutukoa zen; 1998an 5 ordu eta 9 minutura jaitsi zen, eta 2003an 4 ordu eta 54 minutukoa zen. Jarduera horietan emandako denbora asteburuetan pilatzen da. Oro har, etengabeko beherakada dago; hain zuzen ere, denbora hori 4 ordu eta 11 minutukoa da lanegunetan, eta 6 ordu eta 52 minutukoa igandeetan.

Ostiraletan aisiarako denbora 4 ordu eta 36 minutukoa da; larunbatean 6 ordu eta 6 minutukoa, eta igandean 6 ordu eta 52 minutukoa. Hala eta guztiz ere, aurreko datu-hartzeetakoak baino balio txikiagoak dira, bai gizonen eta bai emakumeen kasuan.

Kontzeptu orokorraren aldetik, Gizarte-harremanak epigrafearen barruko jarduerek denboran beherakadatxoa adierazten dute, aurreko bosturtekoei dagokienez.

Jarduera talde horretan biztanleriaren erdia baino gehiago dago inplikaturik, ostiraletik igandera, baina partaidetza-tasa apurka-apurka jaitsi egiten da, eta 2003an partaide bakoitzeko batez besteko denbora ordu 1 eta 50 minutukoa da.

Adibidetzat, Harreren eta irteeren atala erabiliko dugu; bertan, partaidetzak 7,4 puntuko beherakada dauka, baina partaide bakoitzeko batez besteko denbora 2 ordu eta 5 minutukoa da.

Las conversaciones suponen 14 minutos más por participante, alcanzando 1 hora y 15 minutos de media por participante. Se observa un aumento del tiempo medio por participante respecto al quinquenio anterior en todos los días de la semana, sin aumento de la tasa de participación.

Las prácticas religiosas ven disminuir la tasa de participación en casi 3 puntos porcentuales, en 2003 se sitúa en el 4,6%, aunque los participantes dedican a estas actividades una media de 1 hora y 1 minuto al día.

La participación cívica y ayudas desinteresadas apenas implican al 2% de la población y el tiempo medio social señalado se acerca a los 2 minutos.

En el grupo de actividades relativas a los dos ocios -activo y pasivo- la población emplea 3 horas y 56 minutos. La tendencia general de los tres quinquenios analizados muestra que la población dedica cada vez menos tiempo al ocio pasivo -los medios de comunicación principalmente, en especial la televisión- mientras el ocio activo suscita mayor atención -prácticas deportivas y paseos principalmente, y también PC e Internet en la última toma de datos-.

El Ocio pasivo ocupa al 91,5% de la población pero ha descendido 2,6 puntos porcentuales respecto a 1998 y su tiempo medio también es 15 minutos menor. La mayor parte del tiempo se dedica a los Medios de difusión, fundamentalmente ver la televisión, mientras aumenta ligeramente estar sin actividad, es decir, el descanso.

El tiempo dedicado a los medios de difusión ha disminuido 17 minutos para los varones y 12 minutos para las mujeres.

La asistencia a espectáculos tampoco aumenta, aunque los que acuden a ellos invierten 1 hora y 56 minutos.

Elkarrizketetan, partaide bakoitzak 14 minutu gehiago eman du; partaide bakoitzeko batez bestekoa ordu 1 eta 15 minutukoa da. Partaide bakoitzeko batez besteko denborak gora egiten du, aurreko bosturtekoari dagokionez, asteko egun guztietan, eta partaidetza-tasak ez du gora egin.

Erlijio-jarduteen partaidetzen ehunekoak ia 3 puntu galdu ditu; 2003. urtean %4,6 ziren jardute horiek. Partaideek batez beste ordu 1 eta minutu 1 hartzen dute mota honetako jarduteetarako egunean.

Herritarren partaidetzan eta borondatezko laguntzetan biztanleriaren %2 baino ez dago inplikaturik, eta adierazitako batez besteko denbora soziala 2 minutu ingurukoa da.

Bi aisiei (aktiboa eta pasiboa) buruzko jarduera taldean, biztanleriak 3 ordu eta 56 minutu erabiltzen ditu. Azterturiko hiru bosturtekoetako joera orokorrean ikusten denez, biztanleriak gero eta denbora gutxiago ematen du aisia pasiboan (batez ere, komunikabideak, gehienbat telebista), eta aisia aktiboak gero eta arreta handiagoa erakartzen du (kirolak eta txangoak, batik bat, baita PC eta Internet ere, azken datuetan).

Aisia pasiboan biztanleriaren %91,5 ibiltzen da, baina portzentaia hori 2,6 puntutan jaitsi da 1998koari dagokionez, eta batez besteko denbora ere 15 minutu laburragoa da. Denboraren zatirik handiena Zabalkundeko bideetan erabiltzen da, batez ere telebista ikusten, eta ezer egin gabe egoteko joera (atsedena hartzea) gero eta handiagoa da.

Zabalkundeko bideetan emandako denborak 17 minutuko beherakada izan du gizonen kasuan, eta 12 minutuko beherakada emakumeen kasuan.

Ikuskizunetara joateko joerak ere ez du gora egin; bertara joaten direnek ordu 1 eta 56 minutu ematen dute horretan.

*Evolución del tiempo medio por participante* **4** ***Partaide bakoitzeko batez besteko denboraren bilakaera***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

El tiempo medio social dedicado al Ocio activo es de 1 hora y 17 minutos, cinco minutos más que en 1998.

Consiste fundamentalmente en Paseos y excursiones, actividades que implican a más de la mitad de la población los fines de semana y que ocupan una hora diaria como media, con un tiempo por participante de 2 horas y 6 minutos.

Así mismo, las Prácticas deportivas ocupan a la población una media de 10 minutos al día; éstas han disminuido los sábados y domingos, aumentando los paseos y excursiones. Además se hace notar la presencia de actividades relacionadas con Internet y otras actividades afines a la Informática, sumando un tiempo medio social de 7 minutos diarios. Los varones muestran una participación superior a las mujeres en estas actividades informáticas.

Se debe resaltar un cambio en la clasificación de ciertas actividades relacionadas con la Informática: en 1993 y 1998 se computaban en Ocio pasivo-juegos (cuyo tiempo medio social se cifraba en 12 minutos y 14 minutos, respectivamente) y ahora se computan en Ocio Activo-PC e Internet (7 minutos), sin efecto retroactivo, presentando el año 2003 un tiempo medio social en Ocio pasivo-juegos de 8 minutos. En este sentido, la diferencia -los 6 minutos que parecen faltar en 2003- está relacionada con parte de los 7 minutos que se contabilizan en 2003.

El ocio activo ocupa a un 59,7% de la población durante algo más de 2 horas al día. Se acortan los paseos de los varones mientras los que practican deporte emplean 5 minutos más. Los sábados y domingos el tiempo medio por participante dedicado al ocio activo alcanza las 2 horas 31 minutos, abarcando al 72,4% de la población, dato también superior al del año 1998.

El tiempo medio social invertido en actividades de desplazamiento -trayectos- es 1 hora y 8 minutos, no muy distinto del ofrecido en 1998 que era de 1 hora y 10 minutos. El tiempo medio por participante es ligeramente mayor, tanto en varones como en mujeres. Los mayores de 60 también invierten más tiempo en trayectos que en 1998 (más de 20 minutos por participante para esta categoría de edad).

En los días laborables se emplea 1 hora y 10 minutos, los viernes 1 hora y 14 minutos y el sábado y domingo menos tiempo, 1 hora y 2 minutos.

La población ocupada emplea cada vez más tiempo en desplazarse a trabajar, lo mismo que la población estudiante, y el aumento en el tiempo medio empleado se reparte entre varones y mujeres de forma similar. Las mujeres ocupadas que participan en las actividades de llevar y traer a personas del hogar emplean una media de 56 minutos en ello, mientras los varones que lo hacen emplean una media de 37 minutos. La diferencia se mantiene todos los días de la semana.

Aisia aktiboan emandako batez besteko denbora soziala ordu 1 eta 17 minutukoa da, 1998an baino bost minutu gehiago.

Gehienbat Osterak eta ibilaldiak egitean oinarritzen da; jarduera horietan biztanleriaren erdiak baino gehiagok hartzen du parte asteburuetan; batez besteko denbora egunero ordubetekoa da eta partaide bakoitzeko denbora 2 ordu eta 6 minutukoa da.

Halaber, Kirol jardueretan, biztanleriak egunero 10 minutu inguru ematen ditu batez beste; denbora hori laburtu egin da larunbatetan eta igandeetan, eta txangoetan eta ibilaldietan emandako denborak gora egin du. Gainera, Interneti loturiko jardueren presentzia gero eta handiagoa da, eta gauza bera gertatzen da Informatikari loturiko beste jarduera batzuen kasuan; batez besteko denbora soziala eguneroko 7 minutukoa da. Gizonek emakumeek baino partaidetza handiagoa dute jarduera informatiko horietan.

Aipagarria da Informatikari loturiko jarduera batzuen sailkapenean egon den aldaketa: 1993an eta 1998an Aisia pasiboa-jolasak deritzonaren barruan zenbatzen ziren (batez besteko denbora sozialak 12 minutukoa eta 14 minutukoa ziren, hurrenez hurren) eta orain Aisia aktiboa-PC eta Internet epigrafearen barruan zenbatzen dira (7 minutu), atzerako eraginik gabe; 2003an Aisia pasiboa-jolasak epigrafean zenbaturiko batez besteko denbora soziala 8 minutukoa izan zen. Horri dagokionez, aldea (2003an falta diren 6 minutuak) 2003an zenbaturiko 7 minutuetariko batzuekin erlazionaturik dago.

Aisia aktiboan biztanleriaren %59,7 ibiltzen da, egunero 2 ordutan baino apur bat gehiagotan. Gizonen osterak laburtu egiten dira eta kirola egiten dutenek, berriz, 5 minutu gehiago ematen dute horretan. Larunbatetan eta igandeetan, partaide bakoitzak aisia aktiboan erabiltzen duen batez besteko denbora 2 ordu eta 31 minutukoa da, eta horretan biztanleriaren %72,4k hartzen du parte; datu hori ere 1998koa baino handigoa da.

Joan-etorrietan emandako batez besteko denbora soziala ordu 1 eta 8 minutukoa da, 1998koaren oso antzekoa (ordu 1 eta 10 minutu). Partaide bakoitzeko batez besteko denbora apur bat luzeagoa da, bai gizonen eta bai emakumeen kasuan. 60 urtetik gorakoek ere 1998an baino denbora luzeagoa ematen dute joan-etorrietan (partaide bakoitzak 20 minutu baino gehiago, adin kategoria horren kasuan).

Lanegunetan ordu 1 eta 10 minutu erabiltzen da, ostiraletan ordu 1 eta 14 minutu, eta larunbatean eta igandean denbora laburragoa, ordu 1 eta 2 minutu.

Okupaturiko biztanleriak gero eta denbora gehiago erabiltzen du lanerako joan-etorrietan, eta ikasleen kasuan gauza bera geratzen da; erabilitako batez besteko denboraren gorakada, berriz, antzean banatzen da gizonen eta emakumeen artean. Etxeko pertsonak eramateko eta ekartzeko jardueretan parte hartzen duten emakume okupatuek batez beste 56 minutu erabiltzen dute horretan; hori egiten duten gizonek, berriz, batez beste 37 minutu erabiltzen dute. Alde hori asteko egun guztietan mantentzen da.

## 1.3 DETERMINANTES DE LA VIDA COTIDIANA

Los determinantes de la vida cotidiana de la población descansan, fundamentalmente, en la división social del trabajo -tomando el género como uno de los determinantes dentro de esta división social- y en el ciclo de vida de las personas.

Las etapas de la vida están asociadas a construcciones sociales catalizadas por la edad -o las edades- en sentido amplio. Este componente "generacional" es considerado como otro de los determinantes en la distribución del tiempo de la población.

## 1.3 EGUNEROKO BIZITZAKO ERAGILEAK

Eguneroko bizitzako eragileak, batik bat, lanaren banaketa sozialean oinarritzen dira (banaketa sozial horren barruan generoa eragileetarikotzat hartuta), baita pertsonen bizi--zikloan ere.

Bizitzaren barruko etapak, berriz, adinaren (edo adinen) arabera katalizaturiko eraikuntza sozialei loturik daude, horren esangurarik zabalenean. "Belaunaldi" mailako osagai hori ere eragile garrantzitsua da biztanleriak egiten duen denboraren banaketan.

*Distribución del tiempo medio social según edad y sexo*

5

***Batez besteko denbora sozialaren banaketa, adinaren eta sexuaren arabera***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

El tiempo de trabajo total comprende actividades de producción y reproducción para el sostenimiento del propio hogar, desde el trabajo remunerado pasando por el trabajo doméstico y continuando por el trabajo voluntario y otros que no se recogen aquí.

En la sociedad actual se ha dado prioridad al trabajo remunerado, cuyo tiempo tiene un precio de mercado, sobre los otros tipos de trabajo.

El tiempo dedicado a trabajo remunerado no se entiende sin el tiempo de trabajo doméstico, sin el sustento de las actividades relacionadas con la denominada "reproducción de la fuerza de trabajo", o también "cuidado de la vida" y que comprende tanto tareas domésticas como cuidados a personas integrantes del hogar. Se puede decir que una parte del trabajo doméstico tiene sustituto de mercado -la parte que puede ser realizada a cambio de un salario- y otra parte no lo tiene.

Existe, además, un tiempo de trabajo voluntario o de participación ciudadana cuya presencia en la población vasca detectada con esta encuesta ha sido muy baja, apenas el 3% de la población[1]. Sus actividades están recogidas en el

(1) *Se ha detectado un problema de medición donde el diario se revela insuficiente: se debe preguntar -Eurostat lo hace- por el tiempo dedicado a estas actividades en cómputo semanal, no diario.*

Lan osoaren denboraren barruan, norberaren etxe barruko sorrerako eta produkzioko jarduerak sartzen dira, ordaindutako lanetik hasita, etxeko lanetik igarota eta borondatezko lanean nahiz berton biltzen ez diren beste batzuetan amaituta.

Oraingo gizartean lehentasuna ematen zaio ordaindutako lanari, beste lan mota batzuei dagokienez, eta horren denborak merkatuko prezio jakina dauka.

Ordaindutako lanean emandako denbora ez da ulertzen etxeko lanean emandako denborarik gabe, "lan-indarraren sorrera" edo "bizitzaren zaintza" deritzonarekin erlazionaturiko jarduerarik gabe; horren barruan, berriz, etxeko lanak eta etxeko lagunen ardura sartzen dira. Esan daiteke etxeko lanaren zati batek merkatuko ordezkoa duela (soldataren truke egin daitekeen zatia) eta beste batek ez duela halakorik.

Gainera, borondatezko lan-denbora dago, hiritarren partaidetzako denbora, eta horrek inkesta honen bidez detektaturiko Euskadiko biztanlerian duen presentzia oso baxua da eta ez da biztanleriaren %3ra heltzen[1]. Horren jarduerak

(1) *Neurketa arazo bat atzeman da, egunerokoa ez baita nahikoa: Jarduera hauetarako astean (eta ez egunean) zenbat denbora erabiltzen den galdetu behar da, Eustatek egiten duen bezalaxe.*

apartado de vida social, junto con otras encaminadas al desarrollo personal y social de la población.

gizarte-harremanen atalean jasota daude, biztanleriaren garapen pertsonalerako eta sozialerako beste batzuekin batera.

Se analiza aquí el empleo del tiempo según los determinantes arriba mencionados para cada uno de los capítulos de actividades.

Hemen denboraren erabilera aztertzen da, goian jardueren kapitulu bakoitzerako aipatu diren eragileak kontuan hartuta.

*Tabla 1: Tiempo medio social de población de la C.A. de Euskadi en 2003, según día de la semana y sexo.*

***1. taula: EAEko biztanleriak 2003an izandako batez besteko denbora soziala, asteko egunaren eta sexuaren arabera.***

| | Guztira<br>Total | | Ast.-Ost.<br>Lunes a jueves | | Ostirala<br>Viernes | | Larunbata<br>Sábado | | Igandea<br>Domingo | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Gizona<br>Varón | Emakumea<br>Mujer | Gizona<br>Varón | Emakumea<br>Mujer | Gizona<br>Varón | Emakumea<br>Mujer | Gizona<br>Varón | Emakumea<br>Mujer | Gizona<br>Varón | Emakumea<br>Mujer |
| **Fisiologi beharrizanak**<br>Necesidades fisiológicas | 11:51 | 11:48 | 11:27 | 11:29 | 11:19 | 11:23 | 12:45 | 12:31 | 13:07 | 12:48 |
| **Ogibide-lanerako eta prestakuntzarako denbora**<br>Trabajo profesional y tiempo de formación | 4:14 | 2:35 | 5:33 | 3:21 | 5:09 | 2:49 | 1:30 | 1:13 | 0:47 | 0:37 |
| **Etxeko lanak**<br>Trabajos domésticos | 1:10 | 3:31 | 1:07 | 3:35 | 1:04 | 3:46 | 1:32 | 3:32 | 1:07 | 3:02 |
| **Etxeko lagunez arduratzea**<br>Cuidados a las personas del hogar | 0:12 | 0:29 | 0:12 | 0:30 | 0:11 | 0:33 | 0:11 | 0:23 | 0:13 | 0:25 |
| **Gizarte-harremanak**<br>Vida social | 1:04 | 0:52 | 0:47 | 0:35 | 0:55 | 0:52 | 1:36 | 1:17 | 1:50 | 1:34 |
| **Aisia aktiboa: kirolak, eta PC eta Internet**<br>Ocio activo: Deportes, y PC e Internet | 1:27 | 1:08 | 1:07 | 0:59 | 1:27 | 1:03 | 2:05 | 1:24 | 2:09 | 1:30 |
| **Aisia pasiboa eta zaletasunak**<br>Ocio pasivo y aficiones | 2:46 | 2:33 | 2:30 | 2:25 | 2:33 | 2:26 | 3:12 | 2:42 | 3:41 | 3:03 |
| **Joan-etorriak**<br>Trayectos | 1:14 | 1:03 | 1:17 | 1:04 | 1:21 | 1:08 | 1:07 | 0:57 | 1:04 | 1:00 |

**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

## A. Actividades de la vida cotidiana: El cuidado de la propia persona.

## A. Eguneroko bizitzako jarduerak: Norberaren zaintza.

La población vasca dedica 11:50 minutos a satisfacer sus necesidades fisiológicas.

Euskadiko biztanleriak batez beste 11:50 ordu erabiltzen ditu beharrizan fisiologikoak asetzen.

En 10 años los varones dedican algo más de tiempo a Necesidades fisiológicas, especialmente sábados y domingos.

10 urtetan gizonek denbora gehitxoago erabiltzen dute beharrizan fisiologikoetan, batez ere larunbatetan eta igandeetan.

Se aprecia estabilidad en los tiempos dedicados a sueño, higiene y cuidados personales (en este apartado la diferencia de tiempo entre varones y mujeres es cada vez menor, ha pasado de 7 a 2 minutos) y un aumento en el tiempo dedicado a comidas y aperitivos fuera del domicilio (16 minutos más en los varones y 10 en las mujeres), mayor los días laborables pero también en días festivos.

Lotan, higienean eta zaintza pertsonaletan erabilitako denboretan egonkortasuna ikusten da (atal honetan, gizonek eta emakumeek erabilitako denboran alde gero eta gutxiago dago, eta 7 minututik 2 minutura igaro da); gainera, etxetik kanpoko otorduetan eta aperitiboetan emandako denborak gora egin du (16 minutu gehiago gizonen kasuan eta 10 emakumeen kasuan), eta denbora hori luzeagoa da lanegunetan, baina baita jaiegunetan ere.

En general, el tiempo medio social dedicado a este capítulo de necesidades fisiológicas es mayor los días laborables para la mujeres y los sábados y domingos es mayor en los varones.

Orokorrean, beharrizan fisiologikoen kapitulu honetan emandako batez besteko denbora soziala lanegunetan handiagoa da emakumeen kasuan, eta larunbatetan eta igandeetan gizonen kasuan.

## B. Actividades de la vida cotidiana: Tiempo de trabajo total.

## B. Eguneroko bizitzako jarduerak: Lan osoaren denbora.

### Tiempo de trabajo y formación

### Laneko eta prestakuntzako denbora

Entendiendo por tiempo de trabajo tanto el remunerado como el no remunerado, el tiempo medio social parece estable respecto a 1993 y 1998, pero los días de la semana

Laneko denboraren barruan ordaindutako eta ordaindu gabeko lana sartzen da; batez besteko denbora soziala itxuraz egonkorra da, 1993ari eta 1998ari dagokienez, baina

muestran diferencias: el tiempo se concentra de lunes a jueves, disminuye el viernes -casi 30 minutos- y apenas varía el sábado (4:12) y el domingo (3:09) en la última década.

asteko egunetan gorabeherak daude: denbora astelehenetik ostegunera pilatzen da, eta ostiraletan behera egiten du (ia 30 minutu), eta larunbatean (4:12) eta igandean (3:09) ia ez du aldaketarik izan azken hamarkadan.

Un análisis de género muestra que la diferencia entre varones y mujeres es casi de 1 hora más para ellas (a pesar de que la distancia de género parece acortarse). Ellas trabajan más y esa diferencia se acerca a las 2 horas los sábados y domingos.

Generoko azterketa batek agerian jartzen duenez, gizonen eta emakumeen arteko aldea ia ordu 1ekoa da, azken horien alde, generoko distantzia itxuraz laburragoa izan arren. Emakumeek lan gehiago egiten dute eta alde hori ia 2 ordukoa da larunbatetan eta igandeetan.

Atendiendo a la relación entre trabajo remunerado (TR) -o la formación en los estudiantes- y trabajo doméstico (TD) se observa lo siguiente: las tareas domésticas suponen un 23,5% de todo el trabajo en los varones y un 61,5% en las mujeres.

Ordaindutako lanaren (OL) -edo ikasleen prestakuntza- eta etxeko lanaren (EL) arteko erlazioa kontuan hartuta, hauxe ikusten da: gizonek etxeko lanaren %23,5 egiten dute eta emakumeek %61,5.

## El trabajo remunerado y la formación

El trabajo remunerado implica cada vez a más personas, en el caso del trabajo profesional principal es del 60% para los varones y del 39% para las mujeres, en general 3,1 puntos porcentuales por encima del quinquenio anterior.

## Ordaindutako lana eta prestakuntza

Ordaindutako lana gero eta pertsona gehiagok egiten dute; ogibide-lan nagusiaren kasuan, portzentaia %60koa da gizonentzat eta %39koa emakumeentzat, eta, orokorrean, aurreko bosturtekoan baino 3,1 puntu gehiago daude orain.

*Tasa de participación en actividades de trabajo y formación por sexo*

**6**

***Lan eta prestakuntza jardueretako partaidetza-tasa, sexuaren arabera***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

El tiempo medio social dedicado al trabajo principal ha crecido los días laborables y ha disminuido los domingos. También ha disminuido el tiempo dedicado a pausas en el trabajo y formación no reglada de los trabajadores; lo mismo sucede con el tiempo medio por participante, que en el trabajo principal es 14 minutos menor que en el período anterior los días laborables.

Lan nagusian emandako batez besteko denbora sozialak gora egin du lanegunetan, eta behera, berriz, igandeetan. Halaber, laneko etenaldietan eta langileen heziketa ez-arautuan emandako denborak ere behera egin du; partaide bakoitzeko batez besteko denboraren kasuan gauza bera gertatzen da, eta hori lan nagusiaren kasuan 14 minutu laburragoa da aurreko aldian baino, lanegunei dagokienez.

En cuanto a la formación reglada, la tasa de participación se cifra en el 10,6% y se concentra de lunes a viernes, presentando un tiempo medio por participante de 2 horas y 22 minutos de lunes a jueves y 4 horas y 50 minutos los viernes.

Heziketa arautuaren kasuan, partaidetza-tasa %10,6koa da eta astelehenetik ostiralera bilduta dago; partaide bakoitzeko batez besteko denbora 2 ordu eta 22 minutukoa da astelehenetik ostegunera, eta 4 ordu eta 50 minutukoa ostiraletan.

La diferencia entre varones y mujeres en el trabajo principal es de 2 horas y 5 minutos los días laborables, mientras en 1998 esta diferencia era de 2 horas y 28 minutos. En el tiempo medio por participante, la diferencia entre varones y mujeres es de 1 hora y 9 minutos mientras en 1998 era de 1 hora y 34 minutos los días laborables. Se acortan diferencias en la población ocupada entre varones y mujeres, aunque la diferencia de jornada es aún grande.

Lan nagusian gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea 2 ordu eta 5 minutukoa da lanegunetan; 1998an alde hori 2 ordu eta 28 minutukoa zen. Partaide bakoitzeko batez besteko denboran, gizonen eta emakumeen arteko aldea ordu 1 eta 9 minutukoa da, eta 1998an, berriz, ordu 1 eta 34 minutukoa zen lanegunetan. Okupaturiko biztanleriaren kasuan, gizonen eta emakumeen arteko aldeak gero eta laburragoak dira, baina jardunaldian oraindik ere alde handia dago.

## Los trabajos domésticos.

El tiempo medio social dedicado por la población a trabajos domésticos presenta variaciones muy ligeras, va disminuyendo y se estima en 2 horas 23 minutos, al tiempo que la tasa de participación disminuye 2,9 puntos porcentuales.

Los trabajos rutinarios de limpieza, cuidado de la ropa y otros arreglos ven disminuir ligeramente su tiempo medio social, al tiempo que aumenta ligeramente el tiempo dedicado a semiocios y se mantiene el dedicado a compras. En todos los casos la tasa de participación presenta decrementos que oscilan entre 2,2 y 4,2 puntos porcentuales respecto a 1998, a excepción del capítulo de semiocios donde se aprecia un incremento de 1,8 puntos porcentuales.

## Etxeko lanak.

Biztanleriak etxeko lanetan emandako batez besteko denbora sozialak aldaketa oso txikiak ditu; gero eta laburragoa da, 2 ordu eta 23 minutukoa; partaidetza-tasak, berriz, 2,9 puntuko beherakada dauka.

Garbiketako, arropa zaintzeko eta antzeko beste gauza batzuetarako ohiko lanetan emandako batez besteko denbora soziala apur bat laburtu egin da; aldi berean, erdi-aisian emandako denborak gorakadatxoa izan du eta erosketan emandakoa mantendu egiten da. Kasu guztietan, partaidetza tasak 2,2 eta 4,2 puntuko beherakadak ditu, 1998ari dagokionez, erdi-aisien kapituluan izan ezik, bertan 1,8 puntuko gorakada baitago.

*Tasa de participación en actividades de trabajo doméstico por sexo*

**7**

***Etxeko lanetako partaidetza-tasa, sexuaren arabera***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

Atendiendo al género, los varones presentan los tiempos más altos en tareas de semiocios con un tiempo medio social de 20 minutos -las mujeres 18 minutos- y la diferencia se acentúa al considerar el tiempo medio por participante, 2 horas 4 minutos ellos y 1 hora 30 minutos ellas.

Se aprecian así mismo grandes diferencias de tiempo medio social entre varones y mujeres en actividades como preparar comidas (1:10 menos ellos), en limpieza (0:38 menos) y en cuidado y preparación de la ropa (0:20 menos).

Generoari dagokionez, gizonek denborarik altuenak dituzte erdi-aisiako lanetan, eta euren batez besteko denbora soziala 20 minutukoa da (emakumeek 18 minutu), eta aldea nabarmendu egiten da partaide bakoitzeko batez besteko denbora kontuan hartuta: gizonek 2 ordu eta 4 minutu eta emakumeek ordu 1 eta 30 minutu.

Halaber, gizonen eta emakumeen artean batez besteko denbora sozialean alde handiak daude janariak prestatzeko jardueretan (gizonek 1:10 gutxiago), garbiketako jardueretan (0:38 gutxiago) eta arroparen zaintzan nahiz prestakuntzan (0:20 gutxiago).

## Los cuidados a personas.

Estas tareas se sitúan conceptualmente dentro del mantenimiento de la familia ya que son tareas imprescindibles para la reproducción social.

El tiempo medio social empleado en cuidados a personas se cifra en 21 minutos, parece que asciende a razón de 1 minuto por quinquenio mientras su tasa de participación apenas ha variado: en los cuidados directos a niños participa un 14,3% de la población, llegando al 17,1% los viernes. En juegos e instrucción participa menos población (un 8,6% en 2003) y en cuidados a adultos la tasa no llega al 4%.

El tiempo medio social que las mujeres dedican a cuidados a niños es de 17 minutos, 3 minutos más los viernes, y el tiempo medio social para los varones se cifra en 6 minutos. En actividades relativas a juegos e instrucción los datos están más igualados, 5 minutos diarios ellos y 6 ellas; tiene mayor interés el tiempo medio por participante ya que la tasa de participación en estas actividades no es alta, como se señala más arriba. Los varones que comparten juegos emplean por término medio 1 hora y 5 minutos y las mujeres que lo hacen emplean 1 hora y 9 minutos.

El tiempo medio por participante en actividades de cuidado de niños ha aumentado desde 1998 10 minutos entre las mujeres cuidadoras y 6 minutos entre los varones cuidadores. En juegos e instrucción el tiempo medio por participante también es superior, 6 minutos para los varones y 9 para las mujeres.

Los cuidados a recién nacidos ocupan menos tiempo a la población en general y los dedicados a niños hasta 14 años ocupan más, especialmente a las mujeres (12 minutos diarios). El tiempo invertido por los participantes en estos cuidados a niños hasta 14 años ha subido 3 minutos en los varones y 10 en las mujeres.

El cuidado a adultos, cuyo tiempo apenas ha variado desde 1998, presenta un tiempo medio social de 4 minutos y una tasa de participación de 3,6%, la mayor entre las tres tomas de datos realizadas.

## C. Actividades de la vida cotidiana: Tiempo dedicado a transportarse al lugar deseado.

El tiempo medio social invertido por la población en actividades de desplazamiento -trayectos- se cifra en 1 hora y 8 minutos, no muy distinto de 1 hora y 10 minutos que fue el dato presentado en 1998.

Los días de la semana influyen lógicamente en los desplazamientos: los de trabajo y estudio se concentran de lunes a viernes y otros trayectos se concentran los fines de semana, junto con actividades de ocio y vida social, principalmente.

## Etxeko lagunez arduratzea.

Halako lanak, kontzeptuen aldetik familiaren mantenuaren barruan sartzen dira, gizartearentzat ezinbesteko lanak baitira.

Pertsonen zaintzan emandako batez besteko denbora soziala 21 minutu ingurukoa da (dirudienez, bosturteko bakoitzeko minutu 1eko gorakada) eta partaidetza-tasak, ostera, ia ez du aldaketarik izan: haurren zaintzan biztanleriaren %14,3k hartzen du parte eta portzentaia hori %17,1ekoa da ostiraletan. Jolasetan eta heziketan biztanle gutxiagok hartzen du parte (2003an %8,6) eta nagusien zaintzan tasa ez da %4ra iristen.

Emakumeek haurrak zaintzen ematen duten batez besteko denbora soziala 17 minutukoa da, eta ostiraletan 3 minutu gehiago; gizonen kasuan, batez besteko denbora soziala 6 minutukoa da. Jolasei eta heziketari loturiko jardueretan datuak berdinagoak dira, 5 minutu gizonen kasuan eta 6 minutu emakumeen kasuan; partaide bakoitzeko batez besteko denbora interesgarriagoa da, jarduera horietan partaidetza-tasa ez baita altua, goian esan dugunez. Jolasetan parte hartzen duten gizonek ordu 1 eta 5 minutu erabiltzen dute batez beste, eta emakumeek, berriz, ordu 1 eta 9 minutu.

Partaide bakoitzak haurren zaintzan emandako batez besteko denborak 10 minutuko gorakada izan du 1998tik, emakume zaintzaileen kasuan, eta 6 minutuko gorakada, gizon zaintzaileen kasuan. Jolasetan eta heziketan ere partaide bakoitzeko batez besteko denbora luzeagoa da, hain zuzen ere, 6 minutu gizonen kasuan eta 9 minutu emakumeen kasuan.

Jaioberrien zaintzan emandako denbora, orokorrean, laburragoa da biztanle guztien kasuan, eta 14 urtera bitarteko haurren zaintzan denbora gehiago ematen da, batik bat emakumeen kasuan (egunero 12 minutu). 14 urtera arteko haurren zaintza horretan emandako denborak 3 minutuko gorakada izan du gizonen kasuan eta 10 minutuko gorakada emakumeen kasuan.

Nagusien zaintzaren denborak ia ez du aldaketarik izan 1998tik; batez besteko denbora soziala 4 minutukoa da eta partaidetza-tasa %3,6koa da, partaidetzarik handiena hiru datu-hartzeetan.

## C. Eguneroko bizitzako jarduerak: Joan-etorrietan emandako denbora

Biztanleriak joan-etorrietan emandako batez besteko denbora soziala ordu 1 eta 8 minutukoa da, eta 1998ko datuaren nahiko antzekoa da (ordu 1 eta 10 minutu).

Lanegunetan, jakina, joan-etorri gehiago egoten da: lanera eta ikasketetara egindako joan-etorriak astelehenetik ostiralera bitartekoak dira, eta beste joan-etorri batzuk asteburuetan egiten dira, aisiako eta gizarte-harremanetako jarduerei lotuta, batik bat.

*Tiempo medio social empleado en Trayectos en día laborable según género.*

8

***Astegunean joan-etorrietan erabilitako batez besteko denbora soziala, sexuaren arabera***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

La tasa de participación muestra que el 44,1% de la población se desplaza diariamente -un día tipo- por motivos de trabajo o estudios, un 10,8% para llevar o traer personas de la familia y más de la mitad de la población (53,6%) por razones de ocio, vida social o trabajos domésticos. Esta tasa de participación en desplazamientos por razones de trabajo o estudio se ha incrementado en 6,6 puntos porcentuales en el último quinquenio y 8,2 puntos porcentuales entre 1993 y 1998.

El tiempo medio social más elevado empleado por la población en trayectos es precisamente el necesario para llegar a ese lugar de trabajo o estudio, 30 minutos diarios, y ha ido creciendo a razón de 5 minutos por quinquenio. La diferencia en el tiempo empleado entre varones y mujeres es cada vez menor.

El tiempo medio social de la población en los trayectos para llevar o traer a personas del hogar permanece estable, 5 minutos diarios, lo mismo que el tiempo medio por participante, cifrado en 48 minutos.

El tiempo medio por participante de las mujeres que llevan o traen personas del hogar se cifra en 56 minutos y en los varones que llevan o traen personas del hogar se cifra en 37 minutos. Esta magnitud ha crecido, en relación al quinquenio anterior, 8 minutos entre las mujeres y un minuto entre los varones.

Partaidetza-tasak erakusten duenez, biztanleriaren %44,1ek eguneroko joan-etorriak egiten ditu, lanaren edota ikasketen eraginez; %10,8k familiako pertsonak eramaten edo ekartzen ditu, eta biztanleriaren erdiak baino gehiagok (%53,6) aisiako, gizarte-harremanetako edo etxeko laneko arrazoien eraginez egiten dituzte joan-etorriak. Laneko edo ikasketako arrazoien eraginezko joan-etorrien partaidetza-tasa horrek 6,6 puntuko gorakada izan du azken bosturtekoan, eta 8,2 puntuko gorakada 1993 eta 1998 bitartean.

Biztanleriak joan-etorrietan erabilitako batez besteko denbora sozialik handiena, izan ere, laneko edo ikasketako lekura iristeko behar dena da; egunero 30 minutukoa da eta bosturteko bakoitzean 5 minutuko gorakada izan du. Gizonek eta emakumeek erabilitako denboran dagoen aldea gero eta txikiagoa da.

Etxeko pertsonak eramateko edo ekartzeko joan-etorrietan erabilitako batez besteko denbora soziala egonkor mantendu da (egunero 5 minutu), eta partaide bakoitzeko denboraren kasuan ere gauza bera gertatzen da (48 minutu).

Etxeko pertsonak eramaten edo ekartzen dituzten emakumeek partaideko duten batez besteko denbora 56 minutukoa da, eta etxeko pertsonak eramaten edo ekartzen dituzten gizonen kasuan, denbora hori 37 minutukoa da. Magnitude horrek gora egin du, aurreko bosturtekoari dagokionez, 8 minutu emakumeen kasuan eta minutu 1 gizonen kasuan.




Fuente: EPT 2003. EUSTAT

Iturria: DAI 2003. EUSTAT

El medio de desplazamiento más utilizado para ir a trabajar o estudiar es "a pie"' (con una tasa de participación de 23,2%), seguido del coche (21,2%) y, a mayor distancia, del transporte público (6,7%). El coche es más utilizado por los varones que por las mujeres y ambos lo utilizan fundamentalmente de lunes a viernes. La duración de los trayectos a pie para estos menesteres es mayor para las mujeres que para los varones (0:41 frente a 0:33) mientras los trayectos en coche son más largos para los varones (0:59 frente a 0:52).

El medio más utilizado para llevar o traer a alguien es a pie y lo hace el 8,7% de la población femenina y el 4,5% de la masculina. El tiempo empleado por estos "acompañantes" es siempre mayor en las mujeres, sea cual sea el medio empleado: a pie (16 minutos más), en coche (17 minutos más) y en transporte público (12 minutos más).

El tiempo medio social empleado en Trayectos por los varones es superior a la media en los trayectos al trabajo, en ocio y en vida social y el tiempo medio social de las mujeres es superior a la media poblacional en los desplazamientos debidos al cuidado del hogar y especialmente en llevar y traer personas; durante todos los días de la semana el tiempo invertido por las acompañantes es superior al de los acompañantes.

## D. Actividades de la vida cotidiana: Tiempo no trabajado y tiempo de ocio total.

El tiempo de ocio es un tiempo dedicado a las relaciones sociales, al consumo, a la construcción de diversas identidades socioculturales, a las aficiones. El tiempo medio social dedicado al ocio es mayor entre los varones prácticamente en todas las categorías de análisis y las tasas de participación más elevadas son las correspondientes al denominado Ocio pasivo, actividades en las que el 91% de la población participa. El ocio activo implica al 59,7% de la población en el año 2003.

La población vasca ve disminuir el tiempo de ocio total, -agregado de actividades relativas a Vida social, Ocio activo y Ocio Pasivo- desde la primera toma de datos de 1991.

Lanera edo ikastera, jendea batez ere "oinez" joaten da (%23,2ko partaidetza-tasa); gero, autoz (%21,2) eta, azkenik, garraio publikoa erabiliz (%6,7). Autoa gizonek emakumeek baino gehiago erabiltzen dute, eta batik bat astelehenetik ostiralera erabiltzen da. Oinez egindako joan-etorrien iraupena handiagoa da emakumeen kasuan, gizonen kasuan baino (0:41 eta 0:33, hurrenez hurren); autoan egindako joan-etorriak, berriz, luzeagoak dira gizonen kasuan (0:59 eta 0:52).

Norbait eramateko edo ekartzeko, joan-etorririk gehienak oinez egiten dira: emakumeen %8,7 eta gizonen %4,5. "Laguntzaile" horiek erabilitako denbora beti da luzeagoa emakumeen kasuan, edozein garraiobide erabili arren: oinez (16 minutu gehiago), autoa (17 minutu gehiago), garraio publikoa (12 minutu gehiago).

Gizonek joan-etorrietan erabilitako denbora soziala, izan ere, laneko, aisiako eta gizarte-harremanetako joan-etorrietan erabilitakoa baino luzeagoa da; emakumeen batez beteko denbora soziala, berriz, etxeko zaintzetarako joan-etorrietan erabilitako denbora baino luzeagoa da, batez ere pertsonak eramateari eta ekartzeari dagokionez; astegun guztietan, emakume laguntzaileek emandako denbora gizon laguntzaileek emandakoa baino luzeagoa da.

## D. Eguneroko bizitzajo jarduerak: Lanean eman gabeko denbora eta aisia osoko denbora.

Aisiako denboran, batez ere gizarte-harremanak, kontsumoa, identitate soziokulturalen eraikuntza eta zaletasunak jorratzen dira. Aisian emandako batez besteko denbora soziala handiagoa da gizonen artean, azterturiko kategoria ia guztietan, eta partaidetza-tasarik altuenak, berriz, Aisia pasiboari dagozkionak dira; jarduera horietan biztanleriaren %91k hartzen du parte. Aisia aktiboan, 2003. urtean, biztanleriaren %59,7k hartzen zuen parte.

Euskadiko biztanleriaren kasuan, aisia osoaren denbora murriztu egin da (Gizarte-harremanak, Aisia aktiboa eta Aisia pasiboa), 1991n datuak lehengoz hartu zirenetik.

El tiempo medio social dedicado al ocio total está por debajo de 5 horas en 2003, cuando nunca antes lo había hecho. Los días laborables se cifra en 4 horas 11 minutos, los viernes aumenta a 4 horas y 36 minutos, alcanzando el sábado 6 horas y 6 minutos y el domingo 6 horas y 52 minutos. A pesar de todo, son valores inferiores a los anteriores tanto para varones como para mujeres.

Las mujeres siempre han dispuesto de un tiempo de ocio total inferior a la media, 4 horas y 33 minutos ellas y 5 horas y 17 minutos ellos. Curiosamente, las mujeres recuperan tiempo los viernes (22 minutos en 10 años).

Las actividades comprendidas en el epígrafe Vida social son diversas; una parte de ellas se refiere a recepciones y salidas y a conversaciones presenciales, otra parte a la participación religiosa, y otra parte al trabajo voluntario. Este epígrafe presenta una disminución en la tasa de participación de 5,6 puntos porcentuales y su tiempo medio social disminuye 5 minutos.

El tiempo de ocio activo y deportes -que en esta ocasión incluye actividades relacionadas con el PC e Internet- presenta un aumento en su tasa de participación de 3,4 puntos porcentuales, fundamentalmente por la inclusión de este último apartado, manteniéndose los paseos y excursiones en torno a una hora y los deportes en 10 minutos diarios.

El denominado ocio pasivo, fundamentalmente atención a los medios de comunicación, relajarse o cultivar aficiones, ocupa a la población durante una media de 2 horas y 39 minutos, y presenta un continuado descenso tanto en su tasa de participación como en su tiempo medio social, el cual pierde 15 minutos desde 1998.

Las razones principales de este descenso general en parte habría que buscarlas en el incremento del tiempo dedicado a trabajo y formación así como a las necesidades fisiológicas, tal vez a costa del ocio.

Por una parte, se observa que la tasa de participación en las distintas actividades disminuye (en recepciones y salidas desciende 7 puntos porcentuales, en lectura, TV y radio 5 puntos, en paseos y excursiones 2 puntos) excepción hecha de Estar sin actividad -relajarse, no hacer nada-. Las prácticas deportivas suben 1 punto porcentual y las conversaciones mantienen su tasa en el 39,6%.

Por otra parte, atendiendo al tiempo medio social, las conversaciones aumentan en 6 minutos, estar sin actividad aumenta en 10 minutos, las recepciones y salidas disminuyen notablemente los fines de semana y, especialmente, el capítulo de lectura, radio y televisión disminuye una media de 21 minutos diarios. Esto no significa que no se encienda la TV o la radio; es preciso señalar que ambos medios están muy presentes como actividades secundarias, acompañando las horas de desayuno, comida y cena; también la lectura acompaña al café y a los trayectos; además parte de las conversaciones presenciales se realizan con la TV puesta. Sin embargo, pierde la consideración de actividad principal y pasa a ser medida o valorada de forma diferente.

Una consideración por género muestra que el descenso del ocio es más agudo en los varones que en las mujeres y que entre éstas el descenso es más notorio en el último quinquenio:

Aisian emandako batez besteko denbora soziala 2003ko 5 orduak baino laburragoa da, eta orain arte ez da halakorik gertatu. Lanegunetan denbora hori 4 ordu eta 11 minutukoa da; ostiraletan 4 ordu eta 36 minutukoa; larunbatetan 6 ordu eta 6 minutukoa, eta igandean 6 ordu eta 52 minutukoa. Hala eta guztiz ere, lehengoak baino balio txikiagoak dira, bai gizonen eta bai emakumeen kasuan.

Emakumeek aisia osoan emandako denbora beti izan da batez bestekoa baino laburragoa: emakumeek 4 ordu eta 33 minutu eta gizonek 5 ordu eta 17 minutu. Emakumeek denbora irabazten dute ostiraletan (22 minutu 10 urtetan).

Gizarte-harremanak atalaren barruko jarduerak era askotakoak dira: alde batetik, harrerak nahiz irteerak eta elkarrizketak; bestetik, partaidetza erlijiosoa, eta azkenik, borondatezko lana. Epigrafe horretan 5,6 puntuko beherakada dago partaidetza-tasan, eta batez besteko denbora sozialak ere 5 minutuko beherakada dauka.

Aisia aktiborako eta kiroletarako denborak (oraingoan, PCri eta Interneti loturiko jarduerak) 3,4 puntuko gorakada dauka partaidetza-tasan, batik bat azken atal hori sartu delako; txangoak eta ibilaldiak ordubete inguruan mantentzen dira, eta kiroletan, azkenik, eguneroko 10 minutu ematen dira.

Aisia pasiboan (batez ere, komunikabideak ikusi edo entzun, erlaxatu edo zaletasunak garatu), biztanleriak 2 ordu eta 39 minutu inguru ematen ditu, eta denbora horrek gero eta beherakada handiagoa dauka, bai partaidetza-tasan eta bai batez besteko denbora sozialean, eta horretan 15 minutu galdu dira 1998tik.

Beherakada orokor horren arrazoi nagusiak, neurri batean, lanean eta prestakuntzan emandako denboraren gorakadan bilatu behar dira, baita beharrizan fisiologikoetan ere, hori guztia aisiaren kalterako izan baita.

Alde batetik, jardueretako partaidetza-tasak behera egin du (harreretan eta irteeretan 7 puntuko beherakada; irakurketan, TBn eta irratian 5 puntuko beherakada, eta txangoetan eta ibilaldietan 2 puntuko beherakada), jarduerarik egin gabe egotearen kasuan izan ezik (erlaxatzea, ezer ez egitea). Kirol jarduerek puntu 1eko gorakada izan dute eta elkarrizketen tasa %39,6koa da.

Bestalde, batez besteko denbora soziala kontuan hartuta, elkarrizketek 6 minutuko gorakada izan dute; jarduera barik egoteak 10 minutuko gorakada izan du; harrerek eta irteerek beherakada nabaria izan dute asteburuetan, eta, batik bat, irakurketa, irratia eta telebista kapituluak batez beste 21 minutuko beherakada izan du egunero. Horrek ez du esan nahi TB edo irratia pizten ez denik; esan behar da bi komunikabide horiek presentzia handia dutela bigarren mailako jardueratzat, eta gosaritan, bazkaritan eta afaritan pizten dira; era berean, kafea hartzean eta joan-etorrietan irakurri egiten da; gainera, elkarrizketen zati bat TB piztuta dagoela egiten da. Hala eta guztiz ere, jarduera nagusiak garrantzia galdu du eta beste modu batean neurtzen edo baloratzen da.

Generoari dagokionez, aisian izandako beherakada nabariagoa da gizonen kasuan emakumeen kasuan baino, eta horien artean beherakada nabarmenagoa da azken bosturtekoan.

*Tabla 2: Evolución del tiempo medio social del Ocio Total por sexo 1993-2003*

***2. taula: Aisia osoaren batez besteko denbora sozialaren bilakaera, sexuaren arabera, 1993-2003***

| | 1993 | 1998 | 2003 | 1993-1998 Δ | 1998-2003 Δ | 1993-2003 Δ |
|---|---|---|---|---|---|---|
| GIZONEZKOAK VARONES | 5:57 | 5:33 | 5:17 | 0:24 | 0:16 | 0:40 |
| EMAKUMEZKOAK MUJERES | 4:48 | 4:46 | 4:32 | 0:02 | 0:14 | 0:16 |

**Fuente: EPT. EUSTAT**

**Iturria: DAI. EUSTAT**

Atendiendo a los diversos grupos sociales, el tiempo más elevado dedicado a ocio se encuentra entre los varones parados (8 horas diarias) seguido del grupo de varones jubilados (7 horas y 22 minutos). Los grupos que menor tiempo presentan son, por este orden, las mujeres ocupadas (3 horas y 13 minutos), los varones ocupados (4 horas y 02 minutos), las mujeres estudiantes (4 horas y 17 minutos) y las mujeres paradas (4 horas y 22 minutos).

En cuanto a los diversos grupos de actividades denominadas de ocio y ordenados los grupos según el tiempo medio diario empleado en ellos por la población en general, se observa en el tiempo dedicado a ver la TV y vídeo un descenso mayor entre los varones que entre las mujeres, tiempo que para ellos es de 1 hora y 42 minutos y para ellas es de 1 hora y 37 minutos. Leer en general (libros, revistas etc.) y escuchar música se mantienen en una media de 22 minutos el primero y 2 minutos el segundo, respectivamente, pero el tiempo empleado en escuchar la radio pasa de 5 a 4 minutos diarios -como actividad principal-.

Hay dos grupos sociales que no presentan ese radical descenso en ver televisión a lo largo de los 10 años del estudio: se trata de las amas de casa -cuyo tiempo medio social se sitúa en 2 horas y 5 minutos- y la mujeres jubiladas -cuyo tiempo medio social se sitúa en 2 horas y 35 minutos, casi como los varones jubilados, 2 horas y 34 minutos-. Una de las razones que se apuntan -ya que el resto de los grupos de mujeres, que son las mujeres estudiantes y ocupadas presentan descensos en el tiempo mencionado- es la relativa a la utilización de los ratos de ocio pasivo que deben ser combinados con espacios libres en tareas domésticas o cuidados a personas. Mientras los varones disponen de su tiempo de ocio con mayor independencia de las responsabilidades domésticas, las mujeres lo hacen de forma más fragmentada y en intervalos entre responsabilidades del hogar.

Las excursiones y paseos -incluyendo caza, etc.- presentan en los varones un ligero y progresivo descenso y el tiempo empleado en ellas se sitúa en 1 hora y 4 minutos; entre las mujeres ha crecido ligeramente desde 1993 y se sitúa en 57 minutos.

Para los varones, el tercer grupo de actividades en importancia -después de los dos grupos anteriores- atendiendo al tiempo medio social empleado en ello lo constituyen las recepciones y salidas -sobre todo ir de copas, ir de potes...- y su tiempo medio social va disminuyendo sobre 10 minutos por quinquenio, situándose en 30 minutos diarios. Le sigue en importancia el grupo de conversaciones -en general incluyendo contactos postales y telefónicos- que ha aumentado ligeramente desde 1998 y se sitúa en 29 minutos.

Gizarte talde desberdinak kontuan hartuta, aisian gizon langabeek erabiltzen dute denborarik gehien (egunero 8 ordu) eta, gero, gizon erretiratuek (7 ordu eta 22 minutu). Denborarik gutxien sartzen dutenak honako hauek dira: emakume ezkonduak (3 ordu eta 13 minutu), gizon okupatuak (4 ordu eta 02 minutu), emakume ikasleak (4 ordu eta 17 minutu) eta emakume langabeak (4 ordu eta 22 minutu).

Aisiako jardueren talde desberdinei dagokienez, horiek bertan egunero erabilitako batez besteko denboraren arabera ordenatuta, TB eta bideoa ikusten emandako denboran beherakada handiagoa dago gizonen kasuan emakumeen kasuan baino; gizonen kasuan denbora hori ordu 1 eta 42 minutukoa da eta emakumeen kasuan ordu 1 eta 37 minutukoa. Irakurtzeko (liburuak, aldizkariak, etab.) eta musika entzuteko denbora 22 minutuko eta 2 minutuko batez bestekoan mantentzen da, hurrenez hurren, baina irratia entzuten erabilitako denbora 5 minututik 4ra igaro da (jarduera nagusitzat).

Bi gizarte taldek ez dute beherakada gogor hori, telebista ikusteari dagokionez, ikerturiko 10 urteetan: etxekoandreak (batez besteko denbora soziala 2 ordu eta 5 minutu ingurukoa da), emakume erretiratuak (batez besteko denbora soziala 2 ordu eta 35 minutu ingurukoa da) eta gizon erretiratuak (emakumeen kasuan bezala 2 ordu eta 34 minutu ingurukoa). Horretarako aipatzen den arrazoietariko bat (gainerako emakume taldeek, hau da, emakume ikasleek eta okupatuek, beherakadak baitituzte denbora horretan) aisia pasiboko tarteak erabiltzeari buruzkoa da, horiek etxeko lanik edo zaintza pertsonalik gabeko astiekin konbinatu behar baitira. Gizonek etxeko ardurekiko independentzia handiagoarekin erabiltzen dute euren aisia; emakumeek, berriz, hori modu zatikatuan eta bitarteka egiten dute, etxeko lanek horretarako aukera ematen dietenean.

Ibilaldiek eta osterek (ehiza eta abar ere barne) apurka-apurkako beherakada dute gizonen kasuan, eta horietan ordu 1 eta 4 minutu erabiltzen dute; emakumeen artean horrek gorakadatxoa izan du 1993tik, eta 57 minutukoa da.

Gizonen kasuan, hirugarren jarduera talderik garrantzitsuena (aurreko bi taldeen ostean), bertan emandako batez besteko denbora soziala kontuan hartuta, harrerek eta irteerek osatzen dute (batez ere poteak hartzen joatea), eta horretan emandako batez besteko denbora soziala 10 minutu laburtzen da bosturteko bakoitzean, eta egunero 30 minutukoa da. Gero, elkarrizketen taldea dator (orokorrean, posta eta telefono bidezko harremanak ere barne); horrek gorakadatxoa izan du 1998tik eta 29 minutukoa da.




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

Las mujeres emplean 30 minutos diarios en estas conversaciones, fruto de un ligero y constante aumento en su evolución mientras que en el apartado de recepciones y salidas, al igual que los varones, su tiempo medio diario desciende más desde 1998 y se sitúa en 16 minutos diarios. Sin embargo, las mujeres que salen de copas o de potes presentan un tiempo medio por participante próximo al de los varones.

En quinto lugar se sitúa el grupo estar sin actividad, es decir, relajarse, no hacer nada, fumar, pensar... cuyo tiempo medio social para varones es de 16 minutos y para las mujeres de 21. En ambos grupos se observa un aumento respecto a años anteriores, tanto en tiempo medio social como en tiempo medio por participante. En 1998 los varones empleaban 8 minutos -la mitad que en 2003- y las mujeres 9 minutos -12 minutos menos que en 2003-. El tiempo medio por participante también era menor en 14 minutos para ellos y 25 minutos para ellas.

La práctica de un deporte -o juegos ligados a la actividad física- ha visto elevarse su tasa de participación en 1,1 puntos porcentuales desde 1998 y se sitúa en el 11,9%. El tiempo medio para los varones es de 13 minutos y se ha mantenido constante en los dos quinquenios de análisis; entre las mujeres se observa una ligerísima tendencia positiva, situándose en 7 minutos diarios.

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

Emakumeek egunero 30 minutu erabiltzen dituzte elkarrizketa horietan, horien bilakaerak izandako apurkako eta etengabeko gorakadaren ondorioz; harreren eta irteeren atalean, berriz, gizonen kasuan bezala, eguneroko batez besteko denborak beherakada handiagoa izan du 1998tik, eta egunero 16 minutukoa da. Hala eta guztiz ere, poteak hartzen ateratzen diren emakumeek partaide bakoitzeko duten batez besteko denbora gizonek dutenaren antzekoa da.

Bosgarrenez, jarduera barik egoteko taldea dago, hau da, erlaxatzen den, ezer egiten ez duen, erre edo pentsatu egiten duen taldea…, eta gizonen kasuan, batez beteko denbora soziala 16 minutukoa da eta emakumeena 21 minutukoa. Bi kasuotan, aurreko urteekiko gorakada dago, bai batez besteko denbora sozialean eta bai partaide bakoitzeko batez besteko denboran. 1998an gizonek 8 minutu erabiltzen zuten (2003koaren erdia) eta emakumeek 9 minutu (2003an baino 12 minutu gutxiago). Partaide bakoitzeko batez besteko denbora ere 14 minutu laburragoa zen gizonentzat eta 25 minutu laburragoa emakumeentzat.

Kirola egitearen (edo ariketa fisikoari loturiko jolasak) partaidetza-tasak 1,1 puntuko gorakada izan du 1998tik, eta %11,9koa da. Gizonentzako batez besteko denbora 13 minutukoa da eta iraunkor mantendu da azterturiko bi bosturtekoetan; emakumeen kasuan, joera positibotxoa dago eta egunero 7 minutukoa da.

El grupo de actividades juegos, Pc e Internet y aficiones está compuesto por actividades clasificadas unas veces como ocio activo (año 2003) y otras como ocio pasivo (año 1998), pero en un esfuerzo de homogeneización se han agrupado los tiempos medios.

En el grupo específico de Uso de Pc e Internet se observa un sensible predominio en la presencia de los varones sobre las mujeres y, atendiendo a la relación con la actividad, de los estudiantes -varones y mujeres- sobre cualquier otro grupo. El tiempo medio social de los estudiantes varones es de 28 minutos diarios y de las mujeres estudiantes de 22 minutos. A continuación el grupo de los varones parados presenta un tiempo medio social de 13 minutos, seguido de los varones ocupados con 8 minutos diarios.

El grupo de actividades denominado asistencia a espectáculos está por delante -en tiempo medio social- de las actividades de participación civil y trabajos en organizaciones en los varones y por detrás en las mujeres. A la asistencia a espectáculos los varones dedican un tiempo medio de 6 minutos, sin grandes cambios a lo largo de los dos quinquenios, y las mujeres 5 minutos, en la misma forma.

Las actividades relacionadas con la participación civil desinteresada y ayudas presentan una tasa de participación por debajo del 3%, y cuyo tiempo medio social parece descender a lo largo de los 10 años del análisis llegando a 3 minutos para los varones y 2 minutos para las mujeres.

Jolasen, PCaren nahiz Interneten eta zaletasunen taldean, batzuetan aisia aktibotzat (2003. urtea) eta beste batzuetan aisia pasibotzat (1998. urtea) sailkaturiko jarduerak sartzen dira, baina homogeneizatzeko ahalegin batean batez besteko denborak bildu dira.

Jolasen, PCaren nahiz Interneten eta zaletasunen taldean, gizonek emakumeekiko nolabaiteko nagusitasuntxoa dute, eta, jarduerarekiko erlazioa kontuan hartuta, ikasleak (gizonak eta emakumeak) gainerako taldeei nagusitzen zaie. Gizonak diren ikasleen batez besteko denbora soziala eguneroko 28 minutukoa da eta emakumeak diren ikasleena 22 minutukoa. Ondoren, gizon langabeen taldeak 13 minutuko batez besteko denbora soziala dauka, eta horien atzetik gizon okupatuak datoz, eguneroko 8 minuturekin.

Ikuskizunetara joatea deritzon jardueren taldea, batez besteko denbora sozialari dagokionez, partaidetza zibileko jardueren eta erakundeetako lanen aurretik dago gizonen kasuan, eta atzetik emakumeen kasuan. Ikuskizunetara joaten, gizonek batez beste 6 minutu erabiltzen dute, eta horretan, bi bosturtekoetan ez da aldaketa handirik egon, eta emakumeek 5 minutu ematen dute.

Borondatezko partaidetza zibilarekin eta laguntzekin erlazionaturiko jarduerek %3tik beherako partaidetza-tasa dute, eta horren batez besteko denbora sozialak behera egin du azterturiko 10 urteetan; gizonen kasuan 3 minutukoa da eta emakumeen kasuan minutu 2koa.

## 1.4 Diferencias en los ritmos diarios

La secuencia de las actividades a lo largo del día, desde el principio al final varía, según los días de la semana y se asemejan unas semanas a otras. Los gráficos horarios muestran la proporción de población que se encuentra realizando una actividad a determinada hora, según el día de la semana. El empleo del tiempo de lunes a jueves, (centrado en actividades de trabajo y formación, así como en las tareas de mantenimiento del hogar y atención a menores) se diferencia del empleo del tiempo en sábados y domingos, (centrado en actividades de ocio y vida social). El viernes presenta una pauta propia, especialmente manifiesta en la tarde y noche[1].

## 1.4 Eguneroko erritmoetan dauden gorabeherak

Egunean zeharreko jardueren sekuentzia, hasieratik amaierara, aldagarria da asteko egunen arabera, eta horretan aste guztiak antzekoak dira. Ordu-grafikoek, berriz, ordu jakinean jardueraren bat egiten ari den biztanleriaren proportzioa erakusten dute, asteko eguna kontuan hartuta. Astelehenetik ostegunera egindako denboraren erabilera (laneko eta prestakuntzako jarduerak, baita etxeko mantenamenduko eta haurren zaintzako lanak ere) desberdina da larunbat-igandeko denborari dagokionez (aisiako eta gizarte-harremaneko jarduerak). Ostiralak bere jarraibide berezia dauka, eta hori batez ere arratsaldean eta gauean gelditzen da agerian[1].

*Distribución media diaria de la participación de la población en los grandes grupos de actividades*

**11**

***Biztanleriak jarduera talde handietan duen partaidetzaren eguneroko batez besteko banaketa***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

La secuencia de las actividades de un día tipo comienza y termina, para la mayoría, con el sueño nocturno, siendo la actividad anterior y posterior al sueño la cena y el desayuno, respectivamente, así como la higiene, todas ellas actividades del capítulo denominado Necesidades Fisiológicas.

Siguiendo con secuencias largas, el Trabajo Remunerado y la Formación son actividades de larga duración -integrando las pausas contenidas en ellas ya recogidas-, las siguientes en duración después del Sueño Nocturno y se cifran en 3

Ohiko egun bateko jardueren sekuentzia, gehienen kasuan, gaueko loarekin amaitzen da; loaren aurreko eta atzeko jarduera afaria eta gosaria izaten dira, hurrenez hurren, baita higienea ere; jarduera horiek guztiak, berriz, Fisiologi beharrizanen kapituluan jasota daude.

Sekuentzia luzeekin jarraituz, Ordaindutako lana eta prestakuntza iraupen luzeko jarduerak dira (bertan jasotako jarraibideekin), gaueko loaren ostean luzeenak, eta egunero 3 ordu eta 23 minutu erabiltzen dira horretan; ondoren Etxeko

1 *La encuesta divide la semana en laborables (de lunes a jueves), viernes, sábado y domingo, dadas las diferentes actividades que se realizan en unos y otros. Entendemos por festivos los domingos.*

1 *Inkestan, asteko egunak honela banatzen dira: lanegunak (astelehenetik ostegunera), ostirala, larunbata eta igandea, batzuetan eta besteetan jarduera ezberdinak egiten direlako. Igandeak jaieguntzat ditugu.*

horas y 23 minutos, seguidas de las Tareas Domésticas, que ocupan 2 horas y 23 minutos de un día tipo -y un ciudadano tipo-. Ver Televisión es otra de las actividades con una duración importante, ya en el capítulo de ocio, junto con Paseos y Excursiones, empleándose por término medio más de una hora de un día tipo.

Sin embargo se debe tener en cuenta la fragmentación de las actividades. Algunas actividades son discontinuas como alimentarse -en momentos distintos del día- y como algunos tipos de ocio -prestar atención a los distintos medios de comunicación-.

## A. Los días laborables: de lunes a jueves y el tiempo de trabajo total

### Los días laborables y el tiempo de trabajo total

Las actividades de trabajo remunerado y formación presentan un aumento significativo en la tasa de participación a partir de las 6 de la mañana en los varones y una hora más tarde en las mujeres.

lanak datoz, 2 ordu eta 23 minuturekin (ohiko egun eta hiritar baten kasuan). Telebista ikusteak ere iraupen luzea dauka, aisiaren kapituluan, osterekin eta ibilaldiekin batera, eta batez beste ordubete baino gehiago ematen da horretan, ohiko egun batean.

Hala ere, kontuan hartu behar da jarduerak zatikakoak direla. Jarduera batzuk ez dira jarraituak, adibidez, elikatzea (eguneko une desberdinetan) eta aisia mota batzuk (komunikabideei eskainitako arreta).

## A. Lanegunak: astelehenetik ostegunera eta lan osoaren denbora

### Lanegunak_lan osoaren denbora

Ordaindutako laneko eta prestakuntzako jarduerek gorakada nagusia dute partaidetza-tasan, goizeko 6etatik aurrera gizonen kasuan eta ordubete beranduago emakumeen kasuan.

*Trabajo remunerado y formación* **12** ***Ordaindutako lana eta prestakuntza***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT** **Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

Entre las 9 y las 12 ronda el 70% en los varones y supera el 50% en las mujeres.

A partir de las 13 horas la tasa cae casi en picado, rondando el 30% a las 14 horas.

La participación vespertina en estas actividades vuelve a crecer a partir de las 2:30 e implica al 60% de los varones hasta las 6 de la tarde pero sólo al 35% de las mujeres. Por la tarde, pues, la participación es 10 puntos porcentuales inferior en los varones y 20 en las mujeres, aunque ambos siguen un patrón horario similar.

9etatik 12etara, gizonen kasuan %70ekoa da eta emakumeen kasuan %50etik gorakoa.

13etatik aurrera, tasa berehala erortzen da, eta 14etan %30ekoa da.

Jarduera horietako partaidetza berriro ere hazi egiten da 2:30etik aurrera; gizonen %60k hartzen dute parte arratsaldeko 6etara arte, baina emakumeen %35ek baino ez dute parterik hartzen. Arratsaldean, beraz, partaidetza 10 puntu txikiagoa da gizonen kasuan eta 20 puntu txikiagoa emakumeen kasuan, baina biek ere antzeko jarraibidea dute orduen aldetik.

El trabajo doméstico tiene lugar, en su mayoría, por la mañana, antes de la hora de comer. El gráfico presenta un pico claro entre las 9:30 y las 11:30 de la mañana los días laborables y se retrasa hora y media los domingos; a partir de ese momento la tasa de participación va disminuyendo hasta que inicia un nuevo ascenso; este segundo pico se inicia hacia las 5 de la tarde los días laborables y hacia la 6 de las tarde los días festivos, y alcanza su máximo entre las 8 y las 9 de la noche los días laborables y dura hasta las 10 los días festivos.

Etxeko lana gehienean goizetan egiten da, bazkalordua baino lehen; grafikoak punta argia erakusten du 9:30etik 11:30era bitartean, lanegunetan, eta igandeetan ordu eta erdi atzeratzen da; une horretatik aurrera, partaidetza-tasa murriztu egiten da, berriro ere gorantz hasi arte; bigarren punta hori arratsaldeko 5etan hasten da lanegunetan eta arratsaldeko 6etan jaiegunetan; gehieneko punta gaueko 8-9etan hartzen du lanegunetan, eta horrek jaiegunetan 10etara irauten du.

*Trabajo doméstico* **13** ***Etxeko lana***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

En días laborables se observa una clara relación del horario de trabajo doméstico con el horario escolar y laboral remunerado de la población y se aprecia que una parte importante del trabajo doméstico está relacionado con la preparación de alimentos.

Lanegunetan erlazio estua dago etxeko lanaren ordutegiaren eta eskolako nahiz ordaindutako laneko ordutegiaren artean; gainera, etxeko lanaren zati handi bat janarien prestakuntzarekin erlazionaturik dago.

*Trabajo doméstico* **14** ***Etxeko lana***




**Fuente: EPT 2003. EUSTAT**

**Iturria: DAI 2003. EUSTAT**

La distribución de las labores domésticas en la población ocupada, un día laborable, presenta un patrón diferente al de la población total, como se observa en los gráficos adjuntos.

La jornada de trabajo doméstico en la población ocupada alcanza su máximo después de las 6 de la tarde, tanto en varones como en mujeres, siguiendo un patrón muy similar en ambos, el cual muestra también una diferencia constante en las tasas de participación entre ambos grupos. La hora de la comida no determina de forma directa el trabajo doméstico en este sector de población. La actividad vespertina más común es la de “compras”.

Etxeko lanek okupaturiko biztanleen artean duten banaketak, lanegun batean, jarraibide desberdina dauka biztanleria osoari dagokionez, erantsitako grafikoetan ikusten denez.

Etxeko lanaren jardunaldiak, biztanleria okupatuaren kasuan, arratsaldeko 6etatik aurrera dauka gorengo unea, bai gizonen eta emakumeen kasuan, eta bi kasuotan antzeko jarraibidea dauka; bi taldeen arteko partaidetza-tasetan ere etengabeko aldea ikusten da. Bazkariaren orduak ez du zuzenean eragiten etxeko lana, biztanleriaren sektore horretan. Goizeko jarduerarik ohikoena "erosketak" egitea da.

## B. Trayectos en día laborable y en día festivo

